

ERRIBERAKO KANTINA USTIATZEKO EMAKIDA

KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA

Bermeoko Urian, Intxausti kaleko batzar gelan, 2017ko maiatzaren 26an, goizeko 8:00ak direnean, batzar publikoan batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburua
Aritz Abaroa Cantuariense J^a, zinegotzia
Aingeru Astui Zarraga J^a, zinegotzia
Xabier Ortuzar Butron J^a, zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udal Idazkaria
Eduarne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiko idazkaria.

Batzarra hasita, Zerbitzu Saileko teknikariaren balorazioaren berri ematen da. Bere txostenean teknikariak honako hau adierazten du.

“Bakarra: Dokumentazioa egokia izanda eta eskaintza bakarra edukita ez da beharrezkoa topatzen puntuaketa egitea.

Goian aipatutako guztia kontuan hartuta, honako hau proposatzen dut:

LEHENA: Erriberako kantina ustiatzeko emakida Nubia Ferreira Costa andreari esleitzea, hileroko ordaindu beharreko kanona 251,00 eurokoa izango delarik.

BIGARRENA: Esleipendunari jakinaraztea, terraza jartzeko baimena tramitatu beharko duela dagokion udaleko sailaren aurrean.”

Honela, Kontratazio Mahaitik “Erriberako kantina ustiatzeko zerbitzua” NUBIA FERREIRA COSTA andreari esleitzeko beharrezko errekerimendua bidaltzea eta bere aldeko esleipen proposamena Tokiko Gobernu Batzordeari bideratzea proposatzen da.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

